



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko otsailaren 5a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, produktu arrunt edo ekologiko eta genetikoki eraldatuen koexistentzia arautzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

- Lege proposamena, Prozedura Kriminalaren Legea aldatzekoa, atxiloturik, atxikirik eta/edo poliziaren egoitzetan dauden pertsonen eskubideen arloan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (10. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arrazoiei buruzko azterlan bat egin ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan laguntza espezializatuko itxaron-zerrenden plangintza eta kudeaketa hobetze aldera. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da susta dezan errekurtsioa jartzea Europako Batzordeak Erronkari Jatorrizko Deituraren Erregelamendua aldatzeko eskaera ukatu izanaren aurka. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A mailara pasa ditzan Nafarroako institutuetan irakasten duten maisu funtzionario lizentziadunak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autobus geltokitik gertuko ikastetxe batean eskolatu ditzan euren eskualdeetan Bigarren Hezkuntza eskaintzen ez delako Iruñera etorri beharra duten D ereduko ikasleak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait azpiegitura bukatzeko epea ezartze aldera. Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (20. or.).
- Adierazpen instituzionala. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du zenbait erakunde sozialek eta zenbait profesionalek nahiz ikertzailek estrategia inklusibo baten alde eginiko adierazpenarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).
- Adierazpen instituzionala, Holokaustoaren biktimak oroitzeko Nazioarteko Eguna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (22. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko ea 2010erako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan zergatik ez den jaso irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdiei buruz 7/2009 Foru Legeak agintzen duena, Juan Cruz Alli Aranguren jaunak egin (23. or.).
- Galdera, jakiteko ea noiz jarriko den Larrialdietarako Aretoa Izabako kontsultategian, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (24. or.).
- Galdera, Arradako Kontzejuko osasun arloko zerbitzuaren egoerari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egin (24. or.).
- Galdera, gazteentzako erreferentzia zentroari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egin (25. or.).
- Galdera, odol-transfusioen Zentroan ehun-banku bat sortzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (25. or.).
- Galdera, HLA laborategia Odol Bankutik ateratzeko arrazoiei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (26. or.).
- Galdera, Aita Barandiaran zahar-etxearen beharrizanak asetzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (26. or.).
- Galdera, jakiteko zer dela-eta erabili den Los Arcosko zirkuitua FITUREn Nafarroaren publizitatea egiteko, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (27. or.).
- Galdera, jakiteko zer ari den egiten Kultura eta Turismo Departamentua Madrileko Reina Sofia Museoa egun dagoen “Encuentros de Pamplona 72” erakusketa Nafarroan ere ikusteko aukera izan dezagun, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (28. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zerbait aurreikusi duen Arradako Kontzejuari ematen zaion uraren kalitatea hobetzeko, María Chivite Navascués andreak egin (28. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Ugalkortasun Unitateari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin (29. or.).
- Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak plangintzaren bat duen, atzerriko hizkuntza duen hizkuntza-eredu bat sendotze aldera, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egin (29. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea hein batean aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen 4.1 artikulua –Zentroa hautatzea– honela dio: “Gaixok eskubidea izanen dute laguntza hartu nahi duten zentroa aukeratzeko

Osasunbideko osasun zerbitzu propioen sare publikoan.”

Halaber, 4.2 artikulua honela dio: “Gaixoari aurreko artikuluan aipaturiko epeetan laguntzarik ezin zaiola eman aurreikusten bada, O-NOZeko Zuzendaritza Nagusiak horren berri eman beharko dio, eta Nafarroako osasun sistema publikoko beste zentro batzuk eskaini ahal izanen dizkio, erantzuna emateko foru lege honetan ezarritako gehieneko epeak bete daitezten.” Hau da, betiere aipatu legean aurreikusten den epean, eta, 6.2 c) artikulua araber, gaixok eginiko eskaintzari uko egiten badio, bermea eten egiten da.

Gure ustez, gaixok erabat baliatu dezaten aukeratzeko eskubidea, beharrezkoa da legea aldatzea eta, aldez aurretik informatuta, gaixoari aukera ematea sistema publikoan ezarritako data berriaren eta zentro itundu batera joatearen artean hautatzeko, bermea galdu edo eten gabe, eta ez orain gertatzen den moduan.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Artikulu bakarra. Uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legearen 4.2 artikulua –Zentroa hautatzea ize-nekoa– testua aldatzea. Hona hemen testu berria:

“2. Gaixo bi aukera izanen ditu: beste zentro publiko edo itundu batean artatzea, kasuan kasuko itxaron beharrezko epearen bermea betetze aldera, edota itxarotea berak hautatutako zentro publikoan artatu arte, nahiz eta itxaron beharrezko epearen bermea iragan. Kasu horretan, artatu arte itxaron beharrezko denborari buruzko informazio errealista emanen zaio.”

Seigarren artikuluko 2.c) idatz-zatia kentzea. Hona hemen testua: “c) Gaixok uko egiten badio Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zentro bat hautatzeko egindako eskaintzari.”

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetu egiten da foru lege honek xedatuari kontra egiten dion maila bereko ala apalagoko arau oro.

Azken xedapena. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra Foru Lege honek.

Foru Lege proposamena, produktu arrunt edo ekologiko eta genetikoki eraldatuen koexistentzia arautzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak produktu arrunt edo ekologiko eta genetikoki eraldatuen koexistentzia arautzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. produktu arrunt edo ekologiko eta genetikoki eraldatuen koexistentzia arautzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, produktu arrunt edo ekologiko eta genetikoki eraldatuen koexistentzia arautzekoa

ZIOEN AZALPENA

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2001eko martxoaren 12ko 2001/18/EE Zuzentaraua, genetikoki eraldatutako organismoak (aurreantzean, GEO) ingurumenean nahita askatzeari buruzkoa, zeinaren bitartez indargabetu baita Kontseiluaren 90/220/EE Zuzentaraua, aldatua izan da, Genetikoki Eraldatutako Elikagai eta Pentsuei buruzko 2003ko irailaren 22ko 1829/2003 (EE) Erregelamenduko 43. artikulua bitartez, – erregelamendu hori Europako Parlamentu eta Kontseiluarena da–.

Aldaketa hori dela medio, estatu kideek egoki diren neurriak hartu ahalko dituzte beste produktu-etan ezustean GEOak egotea eragozteko. Halaber ezartzen da Batzordeak bildu eta koordinatu egiten duela azterlanetan oinarrituriko informazioa, estatu kideetako labore-koexistenziaren bilakaera ikuskatuko duela eta, informazio eta ikuskapen horiek oinarri harturik, orientabideak prestatuko dituela genetikoki eraldaturiko laboreen eta labore arrunt eta ekologikoen koexistenziari buruz.

Kontseiluaren 1997ko urriaren 26ko 98/81/EE Zuzentarauak, zeinaren bitartez aldatu egiten baita 90/219/EE Zuzentaraua, genetikoki eraldaturiko mikroorganismoen erabilera konfinatuari buruzkoa, eta 2001/18/EE Zuzentarauak, arau substantiboak ezartzen dituzte genetikoki eraldaturiko organismoen erabilera konfinatua, borondatezko askapena eta merkaturatzea antolatzeko. Arau horiek apirilaren 25eko 9/2003 Legean bilduta daude, zeinaren bidez ezartzen baita genetikoki eraldaturiko organismoen erabilera konfinatuaren, borondatezko askapenaren eta merkaturatzearen araubide juridikoa.

Bestalde, Europako Batzordeak 2003/556/EE Gomendioa onetsi zuen 2003ko uztailearen 23an, genetikoki eraldaturiko laboreen eta nekazaritza arrunt eta ekologikoaren koexistentzia bermatze aldera estrategia eta praktika nazional hobeak prestatzeko gidalerroei buruzkoa. Gomendio horretan, koexistentzia definitzen da esanez edozein nekazaritza-mota aukeratzeko egiazko gaitasuna dela, eta zenbait jokamolde ezartzen dira, bai teknikoak bai nekazaritza-jardueraren kudeaketari dagozkionak, laboreen nahasketa-arriskua (polinizazio gurutzatuak, "kutsadurak") murrizte aldera. Koexistentzia axolako da genetikoki eraldaturiko laboreak eta genetikoki eraldatu gabeak nahastearen balizko eragin ekonomiko eta ondorioen ikuspegitik, bai eta nahasketa ahal den gehiena murrizte aldera har daitezkeen kudeaketa-neurririk egokienei eta neurri horien kostuari dagokienez ere.

Begi-bistakoa da labore tradizional eta ekologikoak babestu beharra dagoela genetikoki eralda-

turiko barietateak landatzeko eskubidearen aurrean. Era horretan, babestu nahi da laboreen bio-niztasuna, tokian tokiko hazi eta barietateek osatzen duten ondare genetikoa, bai eta merkataritza-ondare bat ere, nola den harako kalitate-politika hura, zeinak, nekazaritza-elikagaien ekoizpen tradizionalari uztarturik, nekazaritza-elikagaien eta abeltzaintzaren sektoreak bere lehia-kortasuna oinarritzen dueneko zutabea osatzen baitu.

Bestalde, nekazaritza-elikagaien kalitate-irudia erlazionatuta egon ohi denez ez soilik ekoizpen tradizional eta ekologikoarekin, baizik eta zenbait eskualderekin ere, eskualde horiek aukera izaten dute *de factoko* "kalitate-marka" bat gorpuzteko, kaltetua gerta litekeena genetikoki eraldaturiko laboreak ekoiztearen ondorioz. Horrenbestez, kontuan hartu behar da ezen, zenbait zonatan, merkatuarekin eta "kalitate-marka" gisa berez daukaten balioarekin zerikusia daukaten arrazoiengatik, ezinezkoa dela genetikoki eraldaturiko laboreak landatzea.

Hori dela-eta, lege horrekin erdietsi nahi diren helburuak dira behar adinako bideak eskuragarri ipintzea, aukera-askatasuna bermatzeko; bai nekazaritza-ekoizleena, bai kontsumitzaileena. Horrez gain, gure arbasoengandik oinordetzan jasotako genetikak, nekazaritzak eta elikagaiek osatzen duten ondarearen biziraupena bermatzea, eta Nafarroako nekazaritza-elikagaien kalitate-irudia epe luzera babestea.

Aldez aurreko gogoeta gisa ezartzen dugu ezen, azterlan ugaritan adierazi izan den bezala, koexistentzia –gaur egun ulertua zenbait laboreen eta beren polinizazio-ahalmenaren isolamendu gisa– bideraezina dela, naturan gerta daitezkeen ezin konta ahala gertakari aurreikusezin eta kontrolaez ingatik.

1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege proposamen honen xedea da genetikoki eraldaturiko laboreen –aurrerantzean GEO izendatuak– koexistentzia arautzea, labore arrunt eta ekologikoen babesa bermatuz.

2. Foru lege honen ondorioetarako, koexistenziaz hartzen da nekazariak edozein nekazaritza-mota egiazki aukeratzeko ahalmena. Hori ziurtatzeko, beharrezkoa da ekoizpen arrunt eta ekologikoak babestea, lorturiko produktu begetaletan genetikoki eraldaturiko organismoen presentzia eragotziz eta, hala, genetikoki eraldaturiko laboreen eta nekazaritza-ekoizpeneko bestelako moduen koexistentzia erreal eta eraginkorra lortuz.

2. artikulua. Aplikazio-esparrua.

Foru lege honen aplikazio-esparruak bere barrenean hartzen dituen espezie begetalen barietateak dira eraldaketa genetiko bat dutelarik Europar Batasunak landatzeko baimendu eta Merkataritzarako Barietateen Erregistroan inskribatuta daudenak.

3. artikulua. Baimena.

1. Genetikoki eraldaturiko barietateak landatzeko, baimen bat lortu beharko da, Nafarroako Gobernuo organo eskudunak emanen duena.

GEO labore baterako baimena-eskaerari baiezeko edo ezezeko erantzuna eman ahal izateko, Nafarroako Gobernuo organo eskudunak honakoa egin beharko du:

a) Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari aurreiazko txosten nahitaezko eta ez loteslea eskatu beharko dio. Txosten-eskaera horri erantsi beharko zaizkio eskatzailearen identifikazio-datuak (izena edo sozietatearen izena, NAN/IFZ, eskatzailearen sexua, kasu bada, eta abar) eta laboreari buruzko honako datu hauek:

- Barietatea eta kasuko eraldaketa genetikoa.
- Aurreikusitako erate- edo landatze-datak eta uztza-bilketakoak.
- Fitosanitarioen aplikaziorako plana.
- Koexistentzia-neurrien aplikaziorako plana.
- Ukituriko lurzatiak eta beren katastro-datuak.
- Laborearen jarraipenerako plana, uztaren garrarioa barne, baldin eta nekazariak garrario hori aurreikusten badu.

b) Laborearen egokitasunari buruzko kontsulta egin beharko die honako entitate eta erakundeei:

- Jatorri-deiturei edo, oro har, geografia-izaera-ko edozein elikagai-kalitateko markari.
- Tokian tokiko ekoizleen erakundeei, halakorik badago, eta nekazaritza-alorreko elkarte profesionalei.
- Eskualde-erakundeei eta kasuko udal-administrazioari.
- Foru-organo eskudunak egoki deritzon beste edozein erakunderi.

2. Labore transgeniko bat baimenduz gero, Nafarroako Gobernuo organo eskudunak horren ezaugarrien berri eman beharko die kasuko lurzatiarekin mugakide direnetan laboreak daukaten pertsoneri, bai eta nekazaritzako materiala eta/edo

ekipamendua harekin partekatzen duten pertsona guztiei. Nafarroako Gobernuak berriemate-epe hori zehaztuko du; dena den, gutxienez ere izan beharko du ereite- edo landatze-lanetarako aurreikusitako eguna baino bi hilabete lehenagokoa.

3. Genetikoki eraldaturiko haziak eta landareak Nafarroaren eremu geografikoan sartu behar dituzten pertsona fisiko edo juridikoek baimena eskatu beharko diote Nafarroako Gobernuko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren menpeko Mintegi Zerbitzuari, eta adierazi beharko dituzte eraldaketa genetikoaren jatorria, ezaugarriak eta deskribapena, bai eta erabilera eta biltegitratze-tokia ere.

Labore arrunt eta ekologikoen babes bermatze aldera, laboretarako haziak eta landareak inportatzen jarduten duten pertsona fisiko eta juridikoek jatorri-ziurtagiria eskatu beharko diote hornitzaileari; ziurtagiri horrek izan beharko du agintari eskudunena edo kreditaturiko entitate batena, eta bertan adierazi beharko da material horiek ez direla GEOak, eta, halaber, haietatik libre daudela. Giza edo animalia-kontsumorako ez diren barietate genetikoki eraldatuen ekoizpena bereziki aintzat hartua izanen da baldin eta, gainera, esparru geografikoan espezie bereko laborerik ez badago.

4. artikulua. Berme ekonomikoa.

1. GEOen barietateen laborantzak kaltea egin ahal dienez ekoizpen arrunt eta/edo ekologikoan diharduten nekazari mugakideei, lurzati horietatik iritsitako GEO materiala aldameneko uztetara iragan ahal izateagatik, foru lege honetako 3. artikulua aipatzen duen baimena eskatzen duen pertsonak Nafarroako Gobernuaren aldeko abal bat aurkeztu beharko du, eragindako galerak ordaindu ahal izateko. Abal horren zenbatekoa bi kontzepturen batura izanen da:

- Kasuko laboretik espero izandako produktu gordina hektarea bakoitzeko, aurreko sasoi batez besteko uzten eta prezioen arabera, zeinak Nafarroako Gobernuak argitaratutako nekazaritza-koiunturari buruzko datuetan jasoak baitaude. Kantitate hori biderkatu egin beharko da GEO laboreekin ereindako hektarea kopuruarekin.

- GEOen presentzia detektatzeko analisi baten kostua. Abal hori exekutatzat joko da baldin eta, kutsadura-susmoak tarteko, nekazariak eskatutako analisiak egiten badira.

2. Organo eskudunak abalaren formatua eta iraupena ezarri beharko ditu. Iraupena, gutxienez ere, uzta ondotik sei hilabetera arte luzatuko da.

3. Abalak, bai nekazarienak bai genetikoki eraldaturiko hazien hornitzaile direnenak, exekutatu ahalko dira baldin eta Nafarroako Gobernuko orga-

no eskudunak, kasua bada, kutsadura dela-eta inguruetako nekazarietako kalte-ordain gisa ezartzen dituen kopuruak ez baditu ordaintzen barietate transgenikoen ekoizpenaz, salmentaz edo biez arduratzen den nekazariak.

4. Barietate transgenikoen ekoizleak labore bat kutsatzen baldin badu eta ez bada frogatzen ekoizle horrek urratu egin dituela foru lege honetako 6. artikuluan jasotako ekoizpen-prozesuko neurriak, kasu horretan, inguruetako nekazari kutsaduraren ondoriozko kalte-ordaina ematearen erantzukizuna baterakoa izanen da: bai genetikoki eraldaturiko hazi eta ekoizpen-materialen produktutzaile diren enpresena, bai hazi eta material horiek zona kutsatutik hurbil manipulatu zituzten nekazariena.

5. Genetikoki eraldatu gabek diren produktuak kutsatuta gertatuz gero, eta haietatik hurbil ez bada GEO laborerik aurkitzen, nekazari kutsadurarengatik kalte-ordaina ematearen erantzukizuna izanen da genetikoki eraldaturiko hazi eta materialen ekoizle diren enpresena.

6. Kalte-ordaina eman beharra ebatziz gero, dagokionak nekazari kaltetuari ordainduko dio galdutako uzta, 4. artikulua honetako 1. zenbakian adierazitako kostuari jarraituz; eta, bestetik, Administrazioak kalte-ordainean sartuko du kutsadura detektatzeko analisisen kostua, zeina ordainduko baitzaio analisisia egin duen entitateari.

5. artikulua. Etiketak.

1. GEOdun labore edo produktua izateari buruzko oharra berariaz agerrarazi beharko da etiketan, genetikoki eraldaturiko organismoen presentzia detektatzen denean. Ohar hori jarriko zaie, era berean, ekoizpen-fasean GEOen erabilera izan duten produktuei, nahiz eta ez GEOrik zuzenean detektatu.

2. Nekazaritzako laboreak eta elikagaiak "genetikoki eraldaturiko organismorik gabe" gisa etiketa daitezke, halakorik detektatzen ez bada. Halaber, genetikoki eraldatu gabeko produktuekin elikatutako abereetatik eratorritako produktuen etiketan ere azaldu ahalko da "genetikoki eraldaturiko organismorik gabeak" direla.

6. artikulua. Ekoizpen prozesuko neurriak.

1. Genetikoki eraldaturiko laboreak ekoiztu nahi dituzten nekazariak beharrezkoak diren nekazaritza-kudeaketarako neurriak hartu beharko dituzte, eraldaturiko material genetikoak isurtzea ekiditeko. Neurri horiek zehaztu beharko ditu, lehenik eta behin, genetikoki eraldaturiko produktuaren hornitzaileak. Halaber, bete beharko dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren edo

organo eskudunaren aginduz ezarritako neurriak. Neurri horiek aplikatu beharko dira baimendutako genetikoki eraldaturiko laboreen kasuan, eta ondoko alderdiei buruzkoak izan ahalko dira, espeziearen arabera:

Ereitea, landatzea eta haztea:

- a) Isolamendu tartearak.
- b) Tanpoi-eremuak.
- c) Intsektuekiko erresistenteak diren GEOentzako babes-eremua.
- d) Polen-hesiak.
- e) Labore-txandaketarako sistema egokiak.
- f) Berez birsortzen diren landareen kontrola.
- g) Laboreen ekoizpen-zikloa programatzea.
- h) Ereiteko makinak garbitzea erabili aurretik eta ondoren.
- i) Haziak modu egokian erabiltzea eta nahas daitezten ekiditea, horretarako enbalaje eta etiketa bereziak erabilia eta modu berezian gordeta.

Lurzatien zainketa:

- a) Makinak garbitzea uzta bildu baino lehen, bai eta ondoren ere.
- b) Uzta biltzeko makinak partekatzea soilik ekoizpen mota bera erabiltzen duten nekazariekin.
- c) Produktuak garraiatu eta biltegian gordetzerakoan, fisikoki bereiztea genetikoki eraldaturiko laboreen sortak eta genetikoki eraldatu gabekoenak, bai garraiatzerakoan, bai biltegitzerakoan.
- d) Lurzatitik genetikoki eraldaturiko material arrasto oro ezabatzea bideraturiko neurriak, ez bada aurreikusten berriz ere GEO laboreak erabiltzea.

2. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ezarriko ditu labore bakoitzerako neurri zehatzak.

3. Labore bakoitzarentzat kontrol eta zaintza plan berriazkoa prestatuko da, eta organo eskudunek garatuko dute.

4. Foru agindu batean jasoko da Nekazaritza Politika Bateratuko laguntza zuzenak jasotzen dituzten nekazariak eta 2007-2013 urteetarako Landa Garapenerako Programaren 2. ardatzeko zenbait laguntza eta berregituraketari eta birmoldaketari laguntzeko laguntzak eta mahastiak kentzeagatiko pizgarriak jasotzen dituztenek bete beharko dituzten kudeaketari eta nekazaritzako eta ingurumeneko baldintza egokiei buruzko legezko betekizunak eta nekazaritza eta inguru-

men arloetako laguntzak laguntzen eskatzaileek ongarriak eta produktu fitosanitarioak erabiltzeko bete beharko dituzten gutxieneko baldintzak ezartzen dituen foru aginduan –2009rako, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren maiztaren 2ko 286/2009 Foru Agindua– jasoko dira GEOak erabiltzearekin loturiko betebeharrak, ikuskapen, kontrol eta zehazpenen ondorioetarako.

7. artikulua. Labore transgenikoak hazteko baimena lortu duten nekazarien betebeharrak.

Genetikoki eraldaturiko laboreen bat baimendu zaien nekazariak ondoko betebeharrak bete beharko dituzte, oro har:

- a) Ofizialki kontrolaturiko hazia edo materialak erabiltzea.
- b) Bost urtez gordetzea ontzien eta ugalketa-materialen etiketak, bertan azaltzen bada produktu horiek genetikoki eraldaturikoak direla.
- c) Uztaren produktua edozein modutan saldu, eraman edo eskualdatu behar duenari idatziz informatzea produktuaren espezieari eta barietatearen izenari buruz, bai eta eraldaketa genetikoki eta identifikatzaile bakarrari buruz ere.
- d) Nekazaritzaren arloko ohiko praktika egokiak aplikatzea.

e) Nafarroako Gobernuako organo eskudunari jakinaraztea lege honetan ezarritako neurriak aplikatzerakoan izan dezaketen edozein arazo edo zailtasun, bai eta baterako existentziari dagokionez sor daitekeen edozein gatazka ere.

f) Laguntza osoa ematea azterketak, kontrolak, lagin-hartzeak eta informazio bilketak egiteko, beharrezkoak badira barietate horien jarraipen-planak betetzeko, administrazio publikoetako organo eskudunek hala erabakitzen dutenean.

8. artikulua. Genetikoki eraldaturiko hazi eta materialen ekoizle diren enpresen betebeharrak.

1. Genetikoki eraldaturiko hazi eta materialen ekoizle diren enpresek eta hazi eta material horiek birsortzen dituen pertsona fisiko eta juridiko orok, alde aurretik baimena jaso badute material horiek Nafarroan ekoizteko edo sartzeko, idatziz eman beharko diete nekazariari, salmentaren unean, lege honetan ezarritako neurriak eta etiketatu eta trazabilitateari buruzko arauak –Genetikoki eraldatutako elikagaien etiketatu eta trazabilitateari eta horietatik eratorriko pentsuen trazabilitateari buruzko 1829/2003 Erregelamendua (CE)– betetzeko beharrezkoa den informazio guztia.

2. Alde batetik, ziurtatu beharko du bere produktua erabil daitekeela gainerako laboreak kutsa-

tzeko arriskurik gabe. Horretaz gain, salmentaren unean idatziz jakinarazi beharko dio nekazariari zer neurri hartu behar dituen material horiek erabiltzerakoan, genetikoki eraldatutako materialek berarekin batera dauden beste labore batzuk kutsatu ez ditzan.

3. Enpresek edo biltegiek organo eskudunari jakinaraziko dizkiote GEO haziak erosi dituzten entitateen datuak, bai eta erositako barietateari buruzkoak ere. Informazio hori emanen da kontuan hartuta datuak babesteko arloan indarrean dagoen araudia.

4. GEO haziak saltzen dituzten enpresa edo biltegiek, produktu horiek Nafarroako Foru Komunitatean saldu ahal izateko, organo eskudunaren baimena lortu beharko dute. Horretarako, berme bat jarri beharko dute jarduera hori gauzatzen duten bitartean. Berme hori izanen da 4. artikuluan ezarritakoaren parekoa bider merkaturatutako hazi-bolumenaren balizko hektarea kopurua. Artikulu honetan ezarritako bermea jarri eta erregistratzen ez diren entitate edo partikularrek debekatuta izanen dute genetikoki eraldaturiko haziak merkaturatzea.

9. artikulua. Zaintza eta kontrola.

1. Biosegurtasunaren arloko foru organo eskudunari dagokio genetikoki eraldaturiko laboreen ikuskapena eta kontrola, artikulu honen 2. idatzatian ezarritakoa galarazi gabe. Organo eskudunari esleitutako eginkizunak ondoko uneetan gauzatuko dira, behinik behin:

a) Hazkuntzako garaian, batera izateari buruzko arauak aplikatzen direla ziurtatzeko: isolamendu tarteak, tanpoi-guneak, ofizialki kontrolatutako hazia eta materiala erabiltzea polinizazio garaian.

b) Bilketaren garaian, ziurtatzeko uzta biltzeko makinak modu egokian erabiltzen direla, foru lege honetatik abiatuta espezie bakoitzerako prestatzen diren foru aginduetan jasotakoaren arabera, bai eta xede desberdinetarako sortak bereizirik daudela eta ekoizpen sistema desberdinak erabiltzen direla uzta jasotzen denetik lehen saltokira iritsi arte, ziurtatuta, horrenbestez, modu bereizian biltegitratzen eta prozesatzen direla eta garraiatzerakoan gerta daitezkeen halabeharrezko isuriak ekiditen direla.

c) Uztaren ostean, GEO materialen hondarrak ez dagoela ziurtatzeko, lurzati horretan berriz ere GEO barietateak erabiltzea ez bada aurreikusten.

d) Kontuan hartuta jarraipen hori egiteko dauden zailtasunak, baldintzen ikuskatzaileak izanen dira aurreko eginkizunak beteko dituztenak, Nafarroako Gobernuak biosegurtasunaren alorrean dituen eskumenak galarazi gabe. Halaber, aurreko

puntuak betetzen ez badira, 286/2009 Foru Aginduan edo hura aldatzen dutenetan aurreikusitako penalizazioak aplikatuko dira.

2. Elikagaien Kalitatearen Zuzendaritzari dago- kio egiaztatzea trazabilitateari eta etiketatzeari buruzko sistemaren funtzionamendua, zeina ezarrita baitago Genetikoki eraldatutako elikagaien etiketatu eta trazabilitateari eta horietatik eratorriko pentsuen trazabilitateari buruzko 1829/2003 Erregelamenduan (CE), bai eta foru lege honetako 5. artikuluan jasotakoa ere.

3. Nafarroako Gobernuak bermatuko du betetzen ote den genetikoki eraldaturiko haziei eta uztei eta haiek lantzen diren lurzatiei buruzko informazioa publikoki eskuragarri egonen dela, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz.

4. Hala ere, nekazariak egin ditzaketen eskaerak kutsatuta egon daitezkeen laboreak aztertzeko beti hartuko dira kontuan, eta horretarako jarritako abalaren bidez ordainduko dira.

10. artikulua. Informazio fluxuak.

Nafarroako Gobernuko organo eskudunak izanen du genetikoki eraldaturiko laboreei eta haiek lantzen diren lurzatiei buruzko informazio osoa, zaintza eta kontrolari buruzko atalean ezarritakoari jarraikiz.

Erregistro hori publikoa izanen da, astero eguneratuko da eta paperean edo euskarri elektronikoan eskuratu ahalko da. Horretarako, ez da beharrezkoa izanen informazio-eskaera zehatz bat egitea. Informazioa hileroko igorriko zaie ukitutzat har daitezkeen entitate eta partikularrei (behinik behin, nekazaritzaren, osasunaren, ingurumenaren eta kontsumoaren alorreko erakundeei).

11. artikulua. Genetikoki Eraldaturiko Laboreak lantzen diren Lurzatiaren Erregistroa.

1. Genetikoki Eraldaturiko Laboreak lantzen diren Lurzatiaren Erregistroa. Erregistroa Nafarroako Gobernuko Landa Garapenerako eta Ingurumenerako Departamentuan eratuko da. Aipatu departamentuaren ardura izanen da Estatuko Administrazio Orokorrari igortzea hark eskatzen duen informazioa.

2. Nafarroako Gobernuak kudeatu eta mantenduko du erregistroa. Bertan jasoko dira, gutxienez, emandako baimenak eta ukapenak, bai eta ikuskapenari eta kontrolari buruzko eginkizunetik eratorritako ekintzen ondoriozko informazio guztia ere.

12. artikulua. Transgenikorik gabeko guneak deklaratzeko.

Transgenikorik gabeko guneak izenda daitezke, eskualde bateko jatorri izendapenek edo kasuko

nekazaritzako entitateak frogatzen badu genetikoki eraldaturiko laboreekin batera egoteak beren produktua irudia kaltetzen duela.

Udalerriek edota udalerrien elkarteek transgenetikorik gabekoak deklaratu ahalko dituzte Nafarroako zenbait eskualde agroklimatiko, ondoko helburuekin:

- Eskualde horiekin lotura duten kalitate aitorturiko elikagaien irudia zaintzea.

- Basa landareen kutsatzeari aurrea hartzea ingurumenaren arloan sentikorrek diren eremuetan.

- Udal agintariek bidezkozat jotzen dituzten beste batzuk.

Azken xedapenak

Azken xedapenetan lehen. Garabidea.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ahalmena izanen du beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan foru lege honetan ezarritakoa aplikatu eta betetze aldera.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik bi hilabetera hartuko du indarra.

legeriatik atxiloteta inkomunikatuari buruzko xedapenak ezabatze aldera.

Atxiloteta inkomunikatuak pertsona atxilotuaren eskubide garrantzitsuak urratzen ditu, bidezko epaiketa ziurtatzeko funtsezkoak direnak –esate baterako, abokatu baten defentsa izatea ahalik eta lasterren–, eta, hori ez ezik, nazioarteko erakundeen kritika gogorrak egin dituzte, atxiloteta modu horrek atxilotutako pertsonak torturak eta bestelako tratu txarrak jasatea ekar baitezake. 1997ko apirilean, Nazio Batuen Erakunde Giza Eskubideen Batzordeak adierazi zuen “atxiloteta inkomunikatu luze bat [...], berez, tratu krudela, ankerra edo iraingarria izan daitekeela” (1).

Amnesty International erakundeak, bestalde, ondorioztatzen du “Espainiako legerian aurreikusitako inkomunikazioak urratu egiten dituela, bai teorian bai praktikan, Espainiak giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arloan hartutako konpromisoak” (2).

Duela gutxi, Nazio Batuen Erakunde Torturaren aurkako Batzordeak, 2009ko azaroaren 2tik 20ra Genevan eginiko 43. bilkuraldian, ondoko gomendioak eman zizkion Espainiako estatuari inkomunikazioa dela eta (3):

«Estatu kideak inkomunikazio araubidea berri-kusi behar du, hura indargabetze aldera, eta, halaber, ziurtatu behar du atxilotutako pertsona guztiek baliatu ahal izan ditzaten atxilotuen oinarriko eskubide hauek:

- a) bere aukerako abokatua hautatzeko eskubidea;
- b) bere aukerako medikuak bisitatzeko eskubidea;
- c) familiako bati edo atxilotuak nahi duen pertsonari atxilotetaren eta uneoro zainduta dagoen tokiaren berri emateko eskubidea;
- d) abokatu batekin isilpean hitz egiteko eskubidea –gaur egun eskubide hori murriztu egiten da, abokatua ofizioa izanda ere–.

Estatu kideak, halaber, ezarri eta indartu beharko lituzke 97. Neurriko Giza Eskubideei buruzko Planean jasotako programa-neurriak; horri dagokionez, bereziki garrantzitsua da bertan aurreikusitako grabazio-sistema herrialdeko polizia-etxe guztietan ezartzea, eta, halaber, gune

komunetan ez ezik, ziegetan eta galdeketa-geletan ere jartzea.

Bestalde, giza eskubideen defentsan diharduten erakunde eta entitate guztiek behin eta berriro eskatu dute indargabetzeko Prozedura Kriminalaren Legearen 527. artikuluan ezarritako inkomunikazioa eta berrezartzeko komunikazioari eta konfiantzazko abokatua aukeratzeari buruzko konstituzio-eskubideak.

Hala, bada, hori guztia kontuan hartuta, proposatzen da Prozedura Kriminalaren Legearen hiru artikulua aldatzea, ondoko erabakiari jarraikiz.

LEGEGINTZA-EKIMENA

Nafarroako Parlamentuak ondoko lege proposamena aurkeztzen du Gorte Nagusietan, Kongresuko eta Senatuko erregelamenduetan ezarritakoaren arabera izapidetua aizan dadin:

LEGE PROPOSAMENA

1. Artikulu bakarra. Prozedura Kriminalaren Legearen 509 eta 520 bis artikulua aldatzea eta 527. artikulua indargabetzea, ondoko testuak gehituta:

1.1. Legearen 509. artikuluari idatz-zati bat, hirugarrena, gehitzea –gaur egungo hirugarrena laugarrena izanen da–. Hona hemen testua: “3. “Atxilotutako pertsona orori ziurtatuko zaio eskubidea nahi duen abokatua aukeratzeko, nahi duen medikuaren bisita jasotzeko eta nahi duen ahaide edo pertsonari jakinarazteko atxilotu dutela eta non duten zaintzapean uneoro, dela polizia-etxean, kuartelean edo espetxean”.

1.2. Legearen 520 bis artikuluari idatz-zati bat, laugarrena, gehitzea. Hona hemen testua: “4. “Bideoa eta audioa grabatzeko ekipoak jarriko dira polizia-etxeetako gune guztietan, bai eta pertsona atxilotua egon daitekeen bestelako tokietan ere, salbu zaintza horrek urratzen duenean pertsona horiek abokatuarekin edo medikuarekin elkarriketa pribatua izateko eskubidea. Ikus-entzunezkoen baliabide horiek erabiltzea ezinbestekoa izanen da kasu guztietan. Bideo eta audio grabazio guztiak toki seguruan gordeko dira epe arrazoizko batean, ziurtatzeko zaintzako epaitegiak eskura izanen dituela, bai eta Ministerio Fiskalak eta, behar denean, defentsak ere.”

1.3. Xedapen indargabetzailea: Prozedura Kriminalaren Legearen 527. artikulua indargabetzea.

(1) Giza Eskubideen Batzordearen 1997/38 Ebazpena, 20. orrialdea.

(2) Amnesty International (2009). *España: salir de las sombras. Es hora de poner fin a la detención en régimen de incomunicación*, 11. orrialdea.

(3) Dokumentua kontsultatzeko: http://www2.ohchr.org/english/bodies/cat/docs/co/CAT-C-ESP-CO-5_sp.doc

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arrazoi-
ei buruzko azterlan bat egin ditzan.**

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen baita batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arrazoi-
ei buruzko azterlan bat egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Osasun arloko gastua baloratzerakoan, hiru parametro hartu behar dira kontuan:

1.- Zenbat gastatzen den.

2.- Zertan gastatzen den.

3.- Nola gastatzen den.

Hori dela eta, ohituta gaude baloratzen soilik zenbat gastatzen den osasun arloan, eta hala transmititzen diogu iritzi publikoari, eta hori funtsezko akatsa da; izan ere, ez dugu osasun arloa bere osotasunean aztertzen, ez da ez plangintzarik ez diru horren kudeaketa egokirik egiten, eta horrek dirua xahutzea ekar dezake. Horren adibide argia dugu itxaron zerrendei buruzko legea; izan ere, lege bat onetsi zen itxaron zerrendak murrizte aldera, eta egiten ari garen bakarra da kontusail horretan dirua sartzea eta sistemari ondorio kaltegarriak eragitea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du erabaki proposamen hau onetsi eta sei hilabeteko epean batzorde bat osa dezan, honakoak egiteko:

1.- Giza baliabideei eta baliabide teknikoei buruzko beharrezko azterketa.

2.- Itxaron zerrenden atzean dauden arrazoi-
azterketa zehatza, non kontuan hartuko baitira, besteak beste, giza baliabideen eskasia osasun arloko arreta-mailetan, baliabide tekniko-
en falta edota baliabide horien errendimendu-beharrak, ohiko erabilera-orduei dagokienez.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan laguntza espezializatuko itxaron-zerrenden plangintza eta kudeaketa hobetze aldera.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait neurri har ditzan laguntza espezializatuko itxaron-zerrenden plangintza eta kudeaketa hobetze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan laguntza espezializatuko itxaron-zerrenden plangintza eta kudeaketa hobetze aldera.

Zioen azalpena

2008an, Nafarroako Foru Komunitateak, bere ordezkartza-organoen bidez eta zehazki Nafarroako Parlamentuaren bidez, aurrekontu arloko erabaki bat onetsi zuen Alderdi Sozialistaren ekimezez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren menpeko erakundeetako itxaron-zerrenden egoera hobetzeko finantzabidea jartze aldera.

Neurri hori abian jartzeko ahalegin ekonomiko handia egin zen, gizon eta emakume nafarrei erraztearren bere osasun sistema publikoa baliatu ahal izatea; izan ere, Nafarroan egin diren gogobetetasun-inkesten arabera eta nafarrek Foru Komunitateko osasun-sisteman jarri dituzten itxaropenen arabera, gizarteak beharrezkoa ikusten du neurri hori.

Ikusita auziaren garrantzia eta aurrekontuetan esleitutako diru kopuru handia, talde sozialistak beharrezkoa ikusi zuen Comptos Ganberari eskatzea fiskalizazio txosten bat egin zezan "Itxaron zerrendak murrizte aldera kontrataturiko langileen ordainsariak" izeneko kontusailaren betetzeari buruz, zeinaren bidez lortu nahi baitzen Nafarroako osasun zerbitzuan metatutako itxaron-zerrendak nabarmen gutxitzea; ganberari orobat eskatu zitzaion azter zezan ea aurrekontu arloko ahalegin haren bidez zer helburu lortu ziren eta zein zen 2008ko urtarriletik abendura bitarte itxaron-zerrendako pertsona kopurua.

Comptos Ganberaren txostena 2009ko abenduaren 29an sartu zen Nafarroako Parlamentuan, eta osasun arloko baliabideen plangintzan eta kudeaketan sakontzeko gomendioa egiten da bertan.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondoko neurriak har ditzan laguntza espezializatuko itxaron-zerrenden plangintza eta kudeaketa hobetze aldera:

1. Osasun zerbitzuen koordinazioa eta integrazioa hobetzea:

a. Maiztasunaren igoera desegokiak eragiten dituzten eraginkortasun ezak gutxitzea (hitzordu errepikatuak, probak alferrik errepikatzea eta abar).

b. Hitzorduak berresteko sistema bat ezartzea, hitzordura agertzen ez diren gaixoen kasuak murrizteko eta kontsulta denbora galtzea ekiditeko.

c. Oinarrizko laguntza zerbitzuko ebazteko ahalmena handitzea: espezialitate desberdinetarako oinarrizko laguntzaren eta laguntza espezializatuen arteko batzordeen funtzionamendua hobetzea, protokolo klinikoak zehaztea patologia nagusietan eta deribazio irizpideak ezartzea.

d. Praktika klinikoaren aldagarritasuna murriztea eta protokoloen eta praktika klinikorako gidien eguneratzea sustatzea, horretarako kontuan hartuta profesionalen laguntza.

2. Artatze-ekoizpena hobetzea eta areagotzea: jarduna areagotzea.

a. Zentro berekietako zerbitzuen ekoizpena areagotzea: ospitale publikoetako kudeatzaileek ospitaleko itxaron-zerrendei buruzko ekintza plan bat prestatuko dute urtero, produkzio-ahalmena optimizatze aldera:

– Baliabide arruntekin egin beharreko jarduna areagotzea: zentroko programa-kontratuan jasotako baliabide arruntak erabilia jarduna areagotzeko eta errendimendua eta eraginkortasuna hobetzeko aukerak berreskuratzea eta itxaron-zerrenda duen zerbitzu bakoitzaren helburuei buruzko hitzarmena.

– Baliabide gehigarri egituratuekin egin beharreko produkzioa: jasoko dira zentroak, kasuko finantzaketa gehigarriarekin –itxaron-zerrendei buruzko kontusaila– bere gain hartu ahalko dituen jardueri buruzko proposamen zenbatekotuak eta xehatuak.

– Arratsaldeko ordutegian egin beharreko jarduerak: zentroetako kudeatzaileek aztertu beharko dituzte beharrezkoak diren jarduerak ebakuntzagenen eta kanpoko kontsultetarako eta proba osagarriak egiteko erabiltzen diren gelen erabilera ahalik eta gehien optimizatze, baliabide egiturazko osagarriekin, 00:00etara arte erabil daitezten.

– Ospitale publikoek berariazko plan bat zehaztuko dute uda sasoirako, Gabonetarako eta Aste Santurako, urtaro horietan itxaron-zerrendak areagotzea saihesten ahalegintzeko. Sasoi horietan goiz eta arratsaldeko lanaldia bultzatuko da.

– Ospitaleetako kudeatzaileek arratsaldeko lanaldia egiteko planak prestatuko dituzte hiru hilabetetik behin, halakorik beharrez gero aplikatze aldera. Plan horiek neurri ezohikotzat hartuko dira, eta ez egiturazkotzat, langile falta edo ohiko lanaldian gerta daitekeen jardura falta betetzeko, eta jasoko dituzten ordainsariak aldizkakoak izanen dira. Halako programak egiten direnean, beharrezkoa den programazioa eta kontrola ahalbidetuko duten azterlanetan oinarrituko dira, nahi ez diren ondorioak ekidite aldera.

– Plan horiek kudeatzaileek soilik aurkeztu ahalko dituzte, hobekuntzarako helburu zehatzei erantzun beharko diete, eta zehaztasunez azaldu beharko dituzte egin beharreko jardura, finantzaketa osagarria eta planaren ezaugarriak. Berariazko plan horiei baimena emanen zaie zentroen kudeaketa-planetan jasotako ohiko jarduna betetzen badira, eta horiekin batera gaixoen optimizazioarako plan bat jarriko da abian. Erregelamendu

bidez arautuko dira, modu egoki eta homogeenan, jardueraren ondoriozko ordainsariak. Halaber, jardueraren kontrol ekonomikoa muturreraino eramanen da, prozesuen egiazko kostua zehazte aldera.

b. Zentro eta zerbitzu itunduekiko lankidetzeta eta Prestazio eta Itunen zerbitzuaren parte-hartze aktiboa sustatzea. Hiru hilabetetik behin prestatuko dira gaixoak zentro itunduetara bidaltzeko planak, zeinetan sartuko baitira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ospitaleek nabarmenki hartu ezin dituzten prozesu patologiko eta proba osagarriak.

3. Kirurgiako itxaron-zerrenden kudeaketa hobetzea

a. Arauz zehaztea pertsona bat, ospitale bakoitzean, arduratuko dena jardura kirurgikoaren, proba osagarrien eta kanpoko kontsulten arloko itxaron-zerrenda prestatu, jarraitu eta mantentzeaz. Arduradun hori ospitaleko zuzendari/kudeatzailearen mendean egonen da eta parte hartuko du ospitale bakoitzeko programazio kirurgikoko batzordean.

b. Gaixoak itxaron-zerrendan sartzeko prozedurak ezarriko dira eta indarrean dagoen araudia betetzen dela zainduko da. Ospitale bakoitzeko itxaron-zerrendaren arduradunari dagokio horren ardura, baita araudia betetzeko eskatzea ere.

c. Ospitale bakoitzeko arduradunak zentroko prozedurari buruzko eskuliburu bat prestatuko du, itxaron-zerrendaren jarraipena egiteko eta hura eguneratzeko eta orrazteko.

d. Hilean behin, ospitaleko zuzendaritzak argitaratu emanen du ospitaleko itxaron-zerrendaren egoera, zeina erabiltzaileen eta profesionalen eskura egonen da Nafarroako Gobernuaren webgunean.

4. Administrazioaren egitura aldatzea eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntza espezializatuko itxaron-zerrendaren kudeaketa zentralizatzea.

a. Itxaron zerrendak murrizte aldera kontratatutako langileen ordainsariak ordaintzeko kontusailak kudeatzeko unitate zentral bat jarriko da abian, Nafarroako Osasun Agentziaren bidez. Itxaron-zerrendaren kudeaketa plan bat prestatuko da, kudeaketarako unitate zentralak ezarri, garatu eta ebaluatuko duena. Aipatu unitateak ondoko eginkizunak izanen ditu:

– Ospitaleetako kudeatzaileek prestatutako jardura planetan jasotako proposamenak aztertzea.

– Proposamen eta txosten desberdinak ikusirik, Osasun Departamentuari proposatzea planaren helburuak erdiesteko beharrezkoak diren jarduerabolumenak eta baliabideak.

– Beste ospitale pribatu batzuetara bidaltzea ospitale berekietan artatu ezin daitezkeen gaixoak, eta, hala, Itxaronaldien Bermeei buruzko Legean ezarritakoa betetzea Prestazio eta Itun Zerbitzua-ren bidez.

– Ospitaleen arteko gaixo mugimenduari lotutako fluxu ekonomikoen esleipen-irizpideak proposatzea.

– Ospitale bakoitzeko planen jarraipen zentralizatu egitea eta itxaron-zerrenden gaineko jardura planen finantzaketa ekonomikoari loturiko aurrekontuen betetzea kontrolatzea eta haren jarraipena egitea.

– Osasun zentroek, espezialitate medikoen eta batzorde zientifikoek eskatuta, unitate zentraleko arduradunak itxaron-zerrendan sartzeko irizpideak proposatuko ditu.

– Zuzendaritzan nagusiak proposamenari esleitzen dion beste edozein eginkizun, itxaron-zerrendei buruzko planarekin zerikusia badu. Itxaron-zerrenden kudeaketa plana baimentzeko eta haren jarraipena eta ebaluazioa egite aldera, beharrezkoak diren langile teknikoak eta administrazioakoak atxikiko zaizkio aipatu unitateari, esleituta dituen eginkizunak betetzeko.

Itxaron-zerrendak kudeatzeko ospitaleetako batzorde teknikoak sortzea eta abian jartzea. Osasun arloko langileen parte-hartze handiena lortze

aldera, batzorde tekniko bana sortuko dira Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako osasun barrutietan. Batzorde horiek aholkularitza eginkizunak izanen dituzte eta jarduerak proposatuko dizkiote ospitaleko zuzendaritzari itxaron-zerrendak hobeto kudeatzeko estrategiak garatzeko, eskaerak kontrolatu eta osasun arloko eskaintza hobetze aldera. Batzorde horietan parte hartuko dute Vianako Printzea kanpo-konsultetarako zentroko arduradunak, zentroetako gaixoari laguntza emateko zerbitzuko arduradunek, zentroetako itxaron-zerrendaren kudeaketaren arduradunek, zentroetako zuzendaritza medikoen eta erregelamendu bidez ezarritako atalburuek.

5. Itxaron-zerrenden kudeaketari buruzko ebaluazio jarraitua egiteko tresnak eta mekanismoak garatu beharko dira, eta ezarritako zuzentze-neurriak agirietan jasoko dira. Halaber, berandutzearen eta haren arrazoien jarraipen zehatzagoa egiten da eta horiei buruzko neurriak hartuko dira.

6. Aztertu beharko dira itxaron-zerrendak sortzea eragiten duten faktoreak. Halaber, patologia garrantzitsuenen azterketa xehakatu egiten da, diagnostikoen arabera, eta antolamendua hobetzeko proposamenak egiten dira, itxaron-zerrenden arazoa konpontze aldera.

7. Egoeraren ikuspegi egokia izate aldera, inkestak egiten zaizkie gaixoei eta fakultatiboei, sistemaren funtzionamenduaren asebetetze-maila ezagutzeko xedearekin.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak

Nekazaritzako sektorea zeharo aldatu da azken hogeitun urteotan, errotik eraldatu baitira haren egiturak eta ekoizpen-sistemak, hobekuntza genetikokiari eta nekazarien eta abeltzainen profesionalizazioari dagokienez. Hori guztia gertatu da nekazarietako eta abeltzainetako inbertsio handiak egin dituztelako produktibitatea eta lehiakortasuna hobetze aldera merkatu gero eta irekiago eta globalizatuago batean, Merkataritzako Mundu Erakundeak egindako presioaren ondorioz prezioen liberalizazioa lerratzeko joera handia duen merkatu batean.

Halere, eta nekazaritzako produktibitatearen hobekuntza gorabehera, nekazarietako eta abeltzainetako prezioen krisi eraman ezina bizi dute; horren ondorioz, nekazaritzako ekoizpen ugartan –untxi, txerri, haragitarako ardi ekoizpenetan eta abar– abeltzainari jatorrian ordaintzen zaizkion prezioek ez dituzte ekoizpen-kostuak berdintzen, eta, halatan, Nafarroan estrategikoa izaten jarraitu behar duen sektore horrek galera ekonomikoak ditu.

Nekazaritzako sektore batzuetako errentagarritasunaren galera horren eraginez, kontsumitzaileek ikusten dute nekazaritzako elikagaien prezioek etengabe garestitzen dutela erosketa-saskia. Lehen mailako aratxearen prezioak, adibidez, % 0,7 jaitsi dira jatorrian 2004tik 2007ra bitarte, baina kontsumitzailearentzat % 7 igo dira bitarte horretan. Jatorrian 3,48 euroan ordaintzen den produktua 14,32 euroan saltzen zaio kontsumitzaileari. Jatorriaren eta helmugaren arteko marjina % 239tik % 311ra igo da.

Berrikitan argitaratu da elikagaien jatorriko eta helmugako prezioen 2009ko indizearen urteko balantzea, zeinaren arabera, iaz, elikagaien prezioa jatorrian baino 4,9 aldiz handiagoa baita helmugan; alegia, % 490 hazi da. Eta hori dena gertatu da KPIa % 0,8koa izan denean eta nekazarietako eta abeltzainen egoera hobetu ez denean.

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerio-ko Txikizkako merkataritzako drogeria eta elikagai arloko prezioen behatokiaren arabera, berriz, 2009ko laugarren sei hilabetean Iruña izan da Estatuko hiririk garestiena erosketak egiteko.

Alegia, opakutasun erabatekoak ahalbidetzen du halako egoerak gertatzea, eta ez nekazarietako, ez abeltzainetako ez eta kontsumitzaileetako ere ez dute ulertzen zer gertatzen ari den.

2008ko apirilean, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak mozio bat aurkeztu zuen, Nafarroako Prezioen Behatokia sortzeko, baina Osoko Bilkurak bazter utzi zuen mozioa maiatzaren 22an, esanez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak hitzarmen bat sinatuko zuela Prodecasarekin, eta hitzarmen haren bidez exijituko zela sarearen bidez publiko egitea landutako, eztabaidatutako eta adostutako datu guztiak.

Hitzarmenaren bidez, beraz, Prezioen Behatokia sortu zen, baina ez zuen bete bere helburu nagusia: merkatuari gardentasuna ekartzea. Behatoki horrek 2008an baino ez du funtzionatu, ez baita haren publizitaterik egin 2009an.

Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren web orrian, Nafarroako Prezioen Behatokia izeneko atal bat sortu du, baina hartan ez dira argitaratu ezta nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen kontsumitzailearentzako prezioei buruzko datuak ere.

Hortaz, ikusita Administrazioak ez duela deus ere egin bi urte hauetan, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nekazaritza arloko prezioen behatoki publiko bat sor dezan, ondokoa helburu: Nafarroan gehien ekoizten diren nekazaritza eta abeltzaintzako produktuek jatorrian duten kostuaren eta prezioaren ezagutza gardenetik abiatuta, elikagaien banaketan parte hartzen duten katebegiek –handizkako merkatariek, txikizkakoek eta merkataritzako eragile handiek– produktu horiek kontsumitzailearen erosketa-saskira iritsi bitarte dituzten egiazko marjinak ezagutzea.

2. Nekazaritza arloko prezioen behatoki publikoak ondokoak jasoko ditu: nekazaritzako produktuen ekoizpen-kostu garbia, jatorrian duten prezioa eta kontsumitzailearentzat duena, saltoki handiak, ertainak eta txikiak bereizita.

3. Nafarroako Gobernuak astero argitaratuko du informazio hori Interneten, halako moduz non sektoreko eragileek eta kontsumitzaileek kontsulta egiteko modua izanen baitute, merkatuari gardenatasuna ematea helburu, eta hedabideei helaraziko die informazio hori.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da susta dezan errekurtsioa jartzea Europako Batzordeak Erronkari Jatorrizko Deituraren Erregelamendua aldatzeko eskaera ukatu izanaren aurka.

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita susta dezan errekurtsioa jartzea Europako Batzordeak Erronkari Jatorrizko Deituraren Erregelamendua aldatzeko eskaera ukatu izanaren aurka.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra Foru Parlamentarien Elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuaren Osasun Batzordeari, eztabaidatua eta bozkatua izateko.

Zioen azalpena

Europako Batzordeak ezezkoa eman dio Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deitura zabaltzeari eta assaf eta lacaune arrazako ardien esnea erabiltzear Erronkari jatorrizko izendapeneko gazta egiteko. Horrek arriskuan jarri ditu Nafarroako mendialdeko ustiategi asko, Erronkariko Ibarrean jarduera ekonomiko garrantzitsua sustatu duen eta sustatzen jarraitu nahi duen industria batean.

Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deitura aipatu arrazetara zabaltzearen helburua da eskaerari erantzutea eta aberastasuna sortzea ardi-ustiategiakin, bai eta horien inguruan integraturiko jardura ekonomikoak garatzea ere, Nafarroako mendialdeari etorkizun bat eskaintzeko, eta hori guztia Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deitura duen gaztaren kalitatea murriztu gabe.

Hori dela eta, aukera horren xedea da enplegua sortzea eta sendotzea enpresa-ekimenean beharra duen eskualde batean; izan ere, Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deitura zabaltzearekin bideragarritasuna eta etorkizuna eman ahalko zaio aberastasuna eta garapena ekarri dituen produktuari.

Horregatik guztiagatik, uste dugu Nafarroako Gobernuak eskura dituen baliabide guztiak erabili behar dituela Europar Batasunean errekurritzeko erabaki hori, alegia, Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emaileak defendatu

bezala, assaf eta lacaune arrazen esnea erabili ahal izateko baimena ukatzeari buruzkoa.

Hori dela-eta, Convergencia de Demócratas de Navarra Foru Parlamentarien Elkarteak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du errekurritu dezan Europako Batzordeko Garapen Iraungarriko eta Nekazari-

tzaren eta Garapenaren Kalitaterako Zuzendaritzaren erabakia, zeinaren bidez ez baita baimenik ematen Erronkariko Gaztaren Jatorrizko Deituraren Erregelamendua aldatzea eta assaf eta lacaune ardien esnearen erabilpena ahalbidetzea Erronkariko gazta egiteko.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 19an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da A mailara pasa ditzan Nafarroako institutueta irakasten duten maisu funtzionario lizentziadunak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita A mailara pasa ditzan Nafarroako institutueta irakasten duten maisu funtzionario lizentziadunak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran lehenbailehen eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Duela gutxi, Hezkuntza Batzordean, aukera izan genuen, bigarrenez, Nafarroako Bigarren Hezkuntzako zenbait institututan lan egiten duten maisu-maistra (lizentziadun) funtzionarioen eska-

ria entzuteko. Haien eskaria, funtsean, A mailara igotzeko izaten ari diren arazoetan oinarritzen da.

Jakina denez, enplegu eskaintza publikoan, behin-behineko irakasleek zenbait abantaila izaten dituzte, Hezkuntzako lan eskaintza publikoko betekizun eta baremoen ezarrita, eta batzuetan funtzionario izatera iristen dira proba teorikoan oso puntuazio txikiak lortuta.

Bi lan bilera horietan, aipatu maisu-maistrek azpimarratu zuten hamabost urte eman ondoren institutueta irakasten, beste maila batzuei dagozkien lanak egiten –atseginez egin ere–, erabat baztertuta sentitzen zirela. Halaber, arazoa konpontzeko borondatea agertu zuten, eta Hezkuntza kontseilariak berak ere adierazi zuen arazo honi irtenbide bat emateko asmoa. Hala ere, beste enplegu eskaintza publiko bat egin da Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat, eta arazoak konpondu gabe jarraitzen du.

Horregatik eta bere garaian azaldutako beste arrazoi batzuegatik, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du lehenbailehen pasa ditzan A mailara Nafarroako institutueta irakasten duten maisu-maistra funtzionario lizentziadunak eta horretarako beharrezkoak diren neurriak ezar ditzan.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autobus geltokitik gertuko ikastetxe batean eskolatu ditzan euren eskualdeetan Bigarren Hezkuntza eskaintzen ez delako Iruñera etorri beharra duten D ereduko ikasleak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da autobus geltokitik gertuko ikastetxe batean eskolatu ditzan euren eskualdeetan Bigarren Hezkuntza eskaintzen ez delako Iruñera etorri beharra duten D ereduko ikasleak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean lehenbailehen eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Martxoaren 2tik 9ra izanen da Bigarren Hezkuntzako ikasleen aurrematrikulazioa. Horretarako, Hezkuntza Departamentuak eskola-plangintza prestatu du eta Atarrabia, Uharte eta Esteribarko eskualdeko eskola-mapa berrantolatu du, eta eskualde horietako ikasleak Atarrabiako institutuari atxiki dizkio. Hala ere, plangintza horretan ez da kontuan hartu Nafarroako zenbait eskualdetako

ikasleak –Zangoza, Tafalla...–; izan ere, ikasle horiek, eskualde horietan D ereduan Bigarren Hezkuntzako eskaintzarik ez zegoenez, Iturruma Institutuan eskolatzen ziren, autobus geltokitik gertu.

2009-2010 ikasturtean, Iruñeko eskualdeak barruti bakarra osatzen duenez, eta aipatu ikasleak ez daudenez atxikita Atarrabiako institutura, institutu hori lehen aukera gisa hautatu zuten 18 ikasle posturik gabe geratu dira, eta Eskolatzeko Batzorde Nagusiak erabaki zuen Biurdana Institutura bidaltzea, zeina autobus geltokitik oso urrun baitago eta ez baitago garraio publikorik hara gertutzeko.

Planteamendu horrek kalte handia ekarri die eskualde horietako ikasleei; izan ere, kasu batzuetan ekarri du ikasketak ezin egitea aukeratutako hizkuntza ereduan, astegunetan Iruñean geratu behar izatea edota familiako norbaitek ekarri eta eraman behar izatea.

Ez da inoren asmoa, eta are gutxiago Hezkuntza Administrazioarena, ikasle horiei kalterik eragitea. Hori dela eta, eta aurreikuspen falta saiheste aldera, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpon ditzan D ereduan eskolatutako eta bizi diren tokietan –Zangoza, Tafalla...– Bigarren Hezkuntzako eskaintzarik ez egoteagatik Iruñera atxikita dauden ikasleek pairatu behar dituzten arazo gehituak, eta ikasle horiek atxiki ditzan haien helmugako lekutik –kasu honetan, autobus geltokitik– gertu dagoen D ereduko Bigarren Hezkuntza ikastetxe batera.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 26an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait azpiegitura bukatzeko epea ezartze aldera.

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkar-teak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azpiegiturei buruzko hitzarmena egin dezan Estatuarekin, zenbait azpiegitura bukatzeko epea ezartze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra Foru Parlamentarien Elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuaren Osasun Batzordeari, eztabaidatua eta bozkatua izateko.

Zioen azalpena

Miguel Sanz jaunak hauxe esan zuen Nafarroako Gobernuako lehendakariarako hautagaiaren inbestidura-hitzaldian: “Eta, bereziki, eraman behar gaitu laster elkargune bat aurkitzera, Nafarroako abiadura handiko korridorea eraikitzeke eta finantzatzeko hitzarmena sinatzeko eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean azpiegiturei buruzko hitzarmen bat sinatzeko, zeinaren bidez epeak zehaztuko diren Medinaceli-Tutera autobia eta Pirinioetako autobia eraikitzeke, Donejakue Bideko autobia Logroñorekin lotzeko, aireportua eraberritzeko eta bi administrazioentzat interesgarriak diren beste azpiegitura estrategiko egiteko.” CDNk Miguel Sanz jaunaren inbestiduraren aldeko botoa eman zuen eta bat dator 2007ko abuztuan Nafarroako Gobernuako lehendakari izateko hautagai zenak eginiko proposamen horrekin. Duela gutxi, protokolo-ekitaldi baten bidez, hasiera eman zitzaion, Donejakue Bideko autobia Logro-

ñorekin lotzeko lanei, Nafarroako Foru Komunitateak, autobia hori gauzatze aldera, bere eskumenekoak ziren lanak amaitu eta urte batzuk geroago.

Agerikoa da Nafarroako abiadura handiko trenaren garapena ez dela ari gauzatzen azpiegitura garrantzitsu horrek beharrezkoa duen premiarekin, Nafarroako garapen sozial eta ekonomikorako lagungarria izan dadin. Abiadura handiko trenak bizi kalitatearen hobekuntza nabarmena ekarriko die Nafarroako herritarrei, eta, halaber, lehiakortasuna ekarriko die Nafarroako enpresei, eta hori da garrantzitsuen CDNrentzat. Iragan maiatzean, Nafarroako Gobernuako arduradunek “historikotzat” jo zuten egun batean, sinatu zen Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzarako protokolo orokorra, Zaragoza-Iruñea abiadura handiko linearen Nafarroako zatia eraikitze aldera. Maiatzetik, behin baino gehiagotan iragarri da laster sinatuko zela abiadura handiko trenaren Nafarroan garatzeko eta finantzatzeko beharrezkoa den hitzarmena, baina orain arte ez da halakorik sinatu.

Bestalde, Nafarroako Gobernua erritmo onean ari da egiten Pirinioetako autobien Nafarroako zatia eraikitzeke lanak. Ia amaituta daude Venta de Judas-erainoko tartekak, eta jada hasiak dira beharrezkoak diren izapideak Aragoiko mugarainoko tartekak amaituta egon daitezzen 2011 amaitzean. Baina, berriro ere, Donejakue Bideko autobidearekin gertatu zen moduan, Aragoiko zatiko lanak, Estatuaren ardurapekoak direnak, ez dira egiten ari azkartasun berarekin. Halaber, ez dago ezarrita aipatu autobien eta Erronkari Ibarren arteko lotura, eta horrek egonezina sortzen du, ez baitaio ez konponbide teknikorik ez denborazkorik eman Pirinioetako haranek Pirinioetako autobia izan behar duten irteerari. Hori dela eta, beharrezkoa da, azpiegitura horren kasuan ere, hitzarmen bat sinatzea, zeinetan finkatuko baitira Pirinioetako autobien Aragoiko zatia egiteko epeak, bai eta Erronkari Ibarrekin egin beharreko lotuneari eman beharrezko konponbidea ere. Eta ez lotunea bakarrik, bai eta lotunetik Burgirako errepide zatiaren egokitzapena ere.

Halaber, ez dago konponduta, epeei dagokienez, Tutera-Medinaceli autobien afera.

Nafarroarentzat hain garrantzitsuak diren lanen garapenak beharrezkoa egiten du hitzarmen bat sinatzea, Nafarroako Gobernuko lehendakariak inbestidura hitzaldian esan zuen moduan. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateak azpiegituri buruzko hitzarmen bat sina dezan Estatuarekin. Hitzarmen horretan jasoko dira Medinaceli-Tutera autobia eta Pirinioetako autobia erai-

kitzeko epeak, Pirinioetako autobia Erronkari Ibarrekin lotzeko konponbidea, abiadura handiko trenak Nafarroan izanen duen garapena eta horretarako epeak, Nafarroako Foru Ogasunari dagokion kostu finantzarioa, Nafarroak eginiko inbertsioak berreskuratzeko prozedura eta epeak, bai eta bi administrazio horien intereseko beste azpiegitura estrategiko batzuk ere.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 28an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Adierazpen instituzionala. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du zenbait erakunde sozialek eta zenbait profesionalek nahiz ikertzailek estrategia inklusibo baten alde eginiko adierazpenarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du zenbait erakunde sozialek eta zenbait profesionalek

nahiz ikertzailek estrategia inklusibo baten alde eginiko adierazpenarekin, hain zuzen ere Iruñeko Adierazpena izenez ere ezagutzen denarekin.”

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Holokaustoaren biktimak oroitzeko Nazioarteko Eguna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Guztiz gaitzesten ditugu jatorri etnikoan edo erlijio-sinesmenetan oinarritutako intolerantzia erlijiosoko adierazpen, kinada, jazarpen edo indarkeria-adierazpen guztiak, edozein dela ere haiek gertatzen diren tokia.

2.- Holokaustoa historikoki gertatu izanaren ukapen guztiak errefusatzeko ditugu, partzialak zein osoak izan, egitate historikoa izan baitzen.

3.- Genozidio ekintzei aurrea hartzeko hezkuntza programen garrantzia gogorarazten dugu.

4.- Gizarteari eskatzen diogu aktiboki parte har dezan pertsona guztientzako giza eskubideen defentsan, eta gogora ditzan zer ondorio ekartzen dituen gorrotoak, fanatismoak, arrazakeriak eta pertsonen arteko aurreiritziek, desberdinak izate hutsak eraginak.”

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea 2010erako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan zergatik ez den jaso irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdiei buruz 7/2009 Foru Legeak agintzen duena.

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Cruz Alli Aranguren jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea 2010erako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan zergatik ez den jaso irabazi asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzen deialdiei buruz 7/2009 Foru Legeak agintzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteko eledun Juan Cruz Alli Aranguren, Legebiltzarreko Erregelamenduko artikuluan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

7/2009 Foru Legearen 7. artikuluan ezartzen denez, "Nafarroako Gobernuak jarduera-multzo bakoitzari buruzko deialdia eginen du" Bestalde, arau bereko 3. artikuluan bost jarduera-talde ezartzen dira, eta 4. artikuluan, berriz, "Gizarte-interese-

seko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa" banatzeko portzentajeak ezartzen dira.

Azkenik, lehen xedapen gehigarriak ezartzen duenez, Nafarroako Gobernuak aurreko ekitaldiko "gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsaren" betetzea ebaluatzeko atal bat sartuko du aurrekontuen lege proiektuen oroitidazkietan.

Aipatu foru legea 2009ko uztailean sartu zen indarrean; hori dela eta, Nafarroako Gobernuak nahiko denbora izan zuen arau hori aurrekontuen proiektuan betetzeko.

Hori ikusirik, Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteak hau jakin nahiko luke:

Zergatik Nafarroako Gobernuak ez zuen sartu 2010eko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretan kontusail bat 1. taldeko irabazi asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egiteko, 7/2009 Foru Legean ezarritakoari jarraituz?

Zergatik ez da sartu 2010eko ekitaldirako aurrekontuen lege proiektuen oroitidazkietan gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsaren aplikazioaren aurreikuspena?

Iruñean, 2009ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Galdera, jakiteko ea noiz jarriko den Larrialdietarako Aretoa Izabako kontsultategian.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea noiz jarriko den Larrialdietarako Aretoa Izabako kontsultategian.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuak noiz jarriko du larrialdietarako gela Izabako kontsultategian?

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 13an.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Arradako Kontzejuko osasun arloko zerbitzuaren egoerari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Arradako Kontzejuko osasun arloko zerbitzuaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galde-

ra hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ahozko galderaren testua

Alderdi sozialistak jakin du zein egoeratan dagoen Arradako kontzejuan eskaintzen den osasun laguntza.

Arradako kontzejuko lehendakariak igorri digu Nafarroako Osasun Zerbitzuari zuzenduriko eskabide-orri baten kopia, zeina 275 biztanlek sinatu duten, kontzejuan eskaintzen den osasun laguntzaren ordutegiak zabalagoak izate aldera.

Informazio horiek ikusirik, alderdi sozialistak hau jakin nahi du:

Osasun kontseilariak ezagutzen al du egoera? Hala bada, zer egingen du aipatu egoera konpontzeko?

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 15ean.

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, gazteentzako erreferentzia zentroari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, gazteentzako erreferentzia zentroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak ahoz erantzun dezan Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran:

Gazteentzako erreferentzia zentroari buruzko galdera

Zer urrats egin dira gazteentzako erreferentzia zentroa eraikitzeko, Plan Estrategikoan eta 2008an Parlamentuak onetsitako mozio batean zehazturiko moduan?

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, odol-transfusioen Zentroan ehun-banku bat sortzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, odol-transfusioen Zentroan ehun-banku bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Hemoterapiako II. Planean, Comptos Ganberako txostenean jasotako gomendioak betetze aldera, esaten da ehunen banku bat sortuko dela gaur egungo Odol-transfusioen Zentroan. Nola egingen du, noizko eta gaur egungo bankuetatik zeinetan izanen du eragina?

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, HLA laborategia Odol Bankutik ateratzeko arrazoiei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, HLA laborategia Odol Bankutik ateratzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Zergatik atera da HLA laborategia Odol Bankutik? Non eta nola jarriko da?

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Aita Barandiaran zahar-etxearen beharrianak asetzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Aita Barandiaran zahar-etxearen beharrianak asetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilari García Malo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan: Ahozko galdera hau aurkeztu dut aurretik eginiko galdera idazi baten ondorioz –7-09/PES-00305–. Erantzunik ez dudanez jaso, bi aldiz aurkeztu badut ere, ahozko galdera gisa aurkeztu dut, gai berarekin zerikusia duen beste galdera batekin batera.

Zioen azalpena

Aurtengo martxoaren 25ean, Altsasuko zahar etxeko patronatuak eskabide bat igorri zuen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentura, Aita Barandiaran zahar etxeko teilatua konpontzeko eskatuz. Horretaz gain, idazkian ondokoa esaten zen: “..zain gaude noiz aurreikusiko ote den ohe artikulatu elektrikoen eta haiei dagozkien mahaitxoaren hornidura.”

2008an 37 aulki artikulatu eskatu zituzten, eta aurrekontuekin zerikusia zuten arrazoiengatik, 5 bakarrik eman zitzaizkien; beraz, 32 aulki gertzen dira emateko. Aurtengo urtarrilean, Prebención Navarrak Autobabeserako Plana egin zuen, zeinetan gomendatzen baita zahar etxeko korrido-reetako ateek suteen aurkako babes sistema izan dezaten, sute bat izanez gero egoitza sektoretan banatu ahal izateko. Azkenik, iragarritako seinale analogikoaren itzaltzea dela-eta, egoitzako telebistak ez daude egokituta lurreko telebista digitala hartzeko –1991ekoak dira–, eta ez dute egokigai-

lurik onartzen. Hori dela eta, urte honen amaierarako egoitzako telebista guztiak aldatu beharko lirateke, hau da, 32 telebista logeletarako eta 2 telebista handi egongelarako.

Gaur egun, egia da teilatua konpondu dela, baina egia da baita ere eraikina Nafarroako Gobernuarena dela, Altsasuko Udalak zahar etxe-ko patronatuaren bidez kudeatzen badu ere. Hori dela eta, zure departamentuak dauka materialari dagokion orenen ardura.

Hori dela-eta, ondoko galderak aurkeztu ditut:

- Noiz beteko ditu zure departamentuak aipatutako beharrianak, kontuan hartuta horietako batzuk departamentuak berak eskatzen dituen betekizunak direla?

- Noiz erantzungo dio zure departamentuak Aita Barandiaran zahar etxe-ko patronatuak gaur egun indarrean dagoen hitzarmena berristeko egitiko eskariari?

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, jakiteko zer dela-eta erabili den Los Arcosko zirkuitua FITUREn Nafarroaren publizitatea egiteko.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer dela-eta erabili den Los Arcosko zirkuitua FITUREn Nafarroaren publizitatea egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, FITUR turismo feria dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuo Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak ahoz erantzun diezaion Kultura eta Turismo Batzordean.

Zer dela-eta erabili da Los Arcosko Nafarroako Zirkuitua FITUREn Nafarroako publizitatea egiteko? Zein helburu eta asmo estrategikoak izan ditu proposamen horrek?

Iruñean, 2010eko ilbeltzaren 26a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko zer ari den egiten Kultura eta Turismo Departamentua Madrileko Reina Sofía Museoan egun dagoen “Encuentros de Pamplona 72” erakusketa Nafarroan ere ikusteko aukera izan dezagun.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer ari den egiten Kultura eta Turismo Departamentua Madrileko Reina Sofía Museoan egun dagoen “Encuentros de Pamplona 72” erakusketa Nafarroan ere ikusteko aukera izan dezagun.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurrak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak ahoz erantzun diezaion Kultura eta Turismo Batzordean.

Zer ari da egiten Kultura eta Turismo Departamentua Madrileko Reina Sofía Museoan egun dagoen “Encuentros de Pamplona 72” erakusketa Nafarroan ere ikusteko aukera izan dezagun?

Iruñean, 2010eko ilbeltzaren 26a

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zerbait aurreikusi duen Arradako Kontzejuari ematen zaion uraren kalitatea hobetzeko.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zerbait aurreikusi duen Arradako Kontzejuari ematen zaion uraren kalitatea hobetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan azaroaren 9an, hauxe irakur zitekeen Arradako kontzejuko udal bando batean: “Ura ez da edateko egokia”. Ondoren, 2010eko urtarrileko 11n, Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Publikoaren Institutuak xedatu zuen, Arradako kontzejuko ur horniketaren kontrolari buruzko txostenean, bertako ura ez dela edateko egokia. Urte asko dira kontzeju horrek arazoak dituela uraren kalita-

tearekin, bai uhertasun arazoengatik bai kutsadura fekalarengatik.

Egoera horren aurrean, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak hau jakin nahi du:

Osasun Departamentuak edo Nafarroako Gobernuak beste departamenturen batek egin

behar al du ezer Murillo el Cuendeko Udalak, zeinak Arradako kontzejua kalitatezko urez hornitzeko ardura baitu, neurriak har ditzan egoera hobetze aldera?

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Ugalkortasun Unitateari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Ugalkortasun Unitateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, honako ahozko galdera egin du, Parlamentuko Osasun Batzordean eztabaidatu eta Osasun kontseilari Kutz andreak erantzun dezan.

2010eko urtarrilaren 27ko *Diario de Noticias* egunkarian, honako izenburuko albistea agertu zen: "Bideko Ama Birjina Ospitaleko ugalkortasun unitate berria urte bukaeran hasiko da lanean".

Zein da ugalkortasun unitate berriaren aurrekontua? 2010eko aurrekontuetako zein kontusail erabiliko da urte honen bukaeran unitate hori lanean has dadin?

Ugalkortasun unitate berriak bere gain hartuko al ditu gaur egun Quirón Klinikara bideratzen diren zerbitzu guztiak?

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 27an.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak plangintzaren bat duen, atzerriko hizkuntza duen hizkuntza-eredu bat sendotze aldera.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko otsailaren 1ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Hezkuntza Departamentuak plangintzaren bat

duen, atzerriko hizkuntza duen hizkuntza-eredu bat sendotze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Hezkuntza kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zioen azalpena

Legegintzaldi honetan zehar, Nafarroako Alderdi Sozialistak zenbait ekimen eraman ditu aurrera atzerriko hizkuntza bat barne hartuko duen hizkuntza eredu bat finkatzeko, gure hezkuntza sistema hurbilago egon dadin Europar Batasunak hizkuntzen ezagutza dela-eta ezarritako helburuekin.

Hala eta guztiz ere, eredu hori oso mantso ari da zabaltzen eta batere kasurik ez zaie egiten ari legebiltzar honek onetsitako ebazpenei.

Galderaren testua

Ba al du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak plangintzaren bat prestaturik programa horretarako, edo gertatuko dena izanen da datorren ikasturterako ikastetxe gehiago eredu horretan sartzea unean uneko gorabeheren menpe geratuko dela?

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

